


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIO DRAMATIZAZIOAREN MINORREAN  
SORTUTAKO PROIEKTUA HAUR HEZKUNTZARA ERAMATEA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Ruiz de Mendoza, Escolar, Amaia.

ZUZENDARIA: Sainz de la Maza, Eider.

2021ko ekainaren 11an

## **LABURPENA**

Haur Hezkuntza graduaren barnean, Adierazpen eta Komunikazio Dramatizazioaren bidez minorrean ematen diren ikasgai guztiak batuz, sortu den proiektu bat Haur Hezkuntzako 5 urteko gela batera eraman da. Graduan zehar eta bereziki minorrean ikasitakoa errealitatera eramanez eta horri buruz ikerketa sakon bat eginez, hezkuntzaren etnografia honetan emaitzak eta datu errealak lortzeko baliabide ezberdinak erabili dira. Proiektuaren barnean dauden hainbat alor ezberdin zehaztu eta aztertu dira erreferentziazko autoreen ekarpenak gehituz.

Hitz klabeak: *Haur Hezkuntza, Dramatizazioa, Antzezpena, Sentimenduak.*

## **RESUMEN**

Las asignaturas que forman el grado en Educación Infantil, más exactamente en el minor de Expresión y comunicación a través de la dramatización, han sido unidas mediante un proyecto el cual se ha llevado a una clase de 5 años de Educación Infantil. Todo lo aprendido en el grado pero sobre todo en el minor, se ha llevado a la realidad haciendo de ello un estudio profundo, una etnografía educativa formada por datos y resultados reales adquiridos de diferentes recursos. Se han concretado y examinado diferentes campos en la materia que se refieren al proyecto apoyándose con referencias de autores.

Palabras claves: *Educación Infantil, Dramatización, Representación teatral, Sentimientos.*

## **AURKIBIDEA**

1.	SARRERA.....	3
2.	MARKO TEORIKOA.....	5
2.1.	Dramatizazioa eta Jolas dramatikoa.....	5
2.2.	Antzerkia.....	6
2.3.	Irudiak.....	7
2.4.	Curriculumaren azterketa.....	8
2.5.	Hezitzaileen rola eta formakuntza.....	11
2.6.	Adierazpena eta Komunikazio Trebetasuna.....	13
2.6.1.	Zapalduen Antzerkia.....	14
3.	HELBURUAK.....	15
4.	METODOA.....	16
4.1.	Abiapuntu metodologikoa: etnografia.....	16
4.2.	Erabilitako tresnak.....	16
5.	EMAITZAK.....	18
5.1.	Adierazpena eta Komunikazio Trebetasuna ikasgaiari esker bereganatutako gaitasunak.....	18
5.2.	Proiektu pedagogiko artistikoa.....	18
5.3.	“Emakume margolariaren istorioa” antzezpena baino lehen.....	19
5.4.	“Emakume margolariaren istorioa” antzezpena.....	24
5.5.	“Emakume margolariaren istorioa” eskola baten errealitatera eramatea.....	25
5.6.	Moldaketak.....	25
5.7.	Aldez aurretiko itxaropenak.....	28
5.8.	Prozesu burokratikoa.....	29
5.9.	Lan-eremuan.....	30
5.10.	Alderdi oztopatzaileak.....	32
5.11.	Alderdi erraztatzailerak.....	33
6.	ONDORIOAK.....	35
7.	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	37
8.	ERANSKINAK.....	41

## 1. SARRERA

Prozesu honen bidez egin den hausnarketarekin Haur Hezkuntzaren munduan dramatizazioak daukan papera indartu egin nahi da, 1991an Valencian antolatu zen topaketa batean hurrengo azalera zen:

Recomendamos que, sin menoscabo de la formación común en Literatura Infantil, que deben recibir todos los maestros, ésta se complete con la oferta de asignaturas específicas sobre dramatización, teatro infantil, poesía y canción, juegos de raíz literaria, tebeo y televisión (Cervera, 1993, 107.orr).

Autore berdinak hau baieztatu zuen: *“Por otra parte la dramatización es el paso previo y obligado para la iniciación en el teatro. La concepción globalizadora de la literatura infantil, que defendemos, apoya netamente la dramatización como una de las actividades creativas y expresivas de más valor dentro de la literatura infantil”* (Cervera, 1989, 167.orr).

DIFERENCIAS ENTRE TEATRO Y JUEGO DRAMÁTICO	
CONCEPTO TRADICIONAL: TEATRO	JUEGO DRAMÁTICO
Se pretende una representación. Interesa el resultado final o espectáculo.	Se busca la expresión. Interesa el proceso o la realización del proyecto que ha motivado al grupo.
Las situaciones planteadas son creadas por el autor, autora y/o el profesor, profesora. Se parte de una obra escrita o acabada.	Se recrean las situaciones imaginadas por las personas que componen el grupo. Se parte del “como si” y de las circunstancias dadas, obteniéndose un primer proyecto oral que luego se completará o se modificará con el accionar de las jugadoras.
El texto es aprendido de memoria por los actores, actrices y las acciones son dirigidas por el profesor, profesora. Los personajes son aceptados a partir de una propuesta de la profesora o profesor (las participantes no se pueden encontrar a sí mismas a través de los personajes). El profesor o profesora plantean el desarrollo de la obra.	El texto y las acciones son improvisadas debiendo respetarse el tema o el argumento del proyecto oral. Los personajes son elegidos y recreados por las jugadoras (las participantes se encuentran a sí mismas en los distintos personajes). El profesor o profesora estimulan el avance de la acción.
La obra se cumple en todas las etapas previstas.	El juego puede no llegar a concretarse si el tema que se juega no se ha estimulado bien.
Se hace en un teatro o un lugar que posea un escenario.	Puede hacerse en un espacio amplio que facilite los movimientos: patio, hall, gimnasio o en el propio aula.
La escenografía es idea del profesorado y normalmente no la realiza el alumnado. El vestuario es confeccionado. Los actores y actrices representan con el fin de gustar a un público pasivo.	Los actores y actrices son personas que juegan a ser y que están en situación de trabajo-juego grupal. Las participantes accionan por sus ganas de jugar y comunicarse con sus compañeros y compañeras, eventuales espectadores.
Crítica: Se comenta en lo formal lo bien que salió el espectáculo y se oyen comentarios.	Se evalúan todos los juegos con el grupo y se estimula la actitud crítica de jugadoras y espectadoras.
Si el teatro se practica como una obligación impuesta los beneficios pedagógicos de su utilización pueden no ser importantes.	Si el teatro se practica como juego, la expresión de la persona es totalizada.

Antzerkia eta jolas dramatikoaren arteko ezberdintasunak. Hemendik egokitua *“Diferencias entre el juego dramático y el teatro como práctica de la educación”* (Eines eta Mantovani, 1997 in Tresserras, 2017).

Ramírezek 2009an aipatzen duen moduan, antzerkiaren bidez lantzen diren hizkuntza artistikoak, sentimenduak eta emozioak komunikatzeko indar handiko tresnak dira. Haurren beharrak anitzak direnez eta hauek azalertzeko moduan ere, antzerkiaren edo gure kasuan dramatizazioaren erabilpena egokia izango litzateke.

Gaur egun baieztatzen den moduan bizitzaren osotasun batera eramaten gaituzten trebetasunak, arlo emozionalarekin lotura handiagoa daukate arlo kognitiboarekin alderatuz (Andrés, 2005). Dramatizazioarekin lortu dezakegun alderdi bat da hau, prozesuaren eta honetan ematen diren egoera eta sentimenduei enfasia emanez.

Lan honen helburuenetariko bat dramatizazio Haur Hezkuntzaren mundura hurbiltzea da, honetarako urtean zehar taldeka sortu den proiektua haurren aurreran antzeztuz edo eskolara eramanez.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1 Dramatizazioa eta Jolas dramatikoak

Haur Hezkuntzan dramatizazioak daukan papera ezinbestekoa da gaur egun, Nuñez (2003, in Goyeneche, 2019) adierazten duen moduan gero eta presentzia handiagoa dauka beste alderdi artistiko batzuekin alderatuz, hala ere Haur Hezkuntzako Curriculumean ez zaio hainbeste garrantzia ematen oraindik ere. Honekin batera **dramatizazioa** banakoaren heziketan indartzaile handi bat da, emozioak, sentimenduak eta ezagutzak kontuan hartzen baititu, hauek izanik Haur Hezkuntzan lantzen diren oinarri garrantzitsuenetarikoak.

Emozioen lanketa funtsezkoa izaten da, haur bakoitza garapen egoki bat izateko aukera ematen du eta. Nuñez eta Navarroren hitzetan (2007) dramatizazioak heziketa emozionalerako oso tresna garrantzitsua da, honekin batera balioetan oinarritutako hezkuntza bermatzen du dramatizazioak eta gaur egun, hori da hezkuntzak gehien behar duena. Ezinbestekoa da balioetan eta errespetu giro batean haurrak heztea, bakoitzaren erritmoak errespetatuz eta norberaren gorputzari behar duen denbora emanaz. 237/215 dekretuak aipatzen duen moduan, “ *Gorputzaren bitartez ideien eta emozioen berri eman eta besteen gorputz-adierazpenak modu egokian interpretatzen eta balioesten da*”.

Dramatizazioaren munduaren barnean hainbat baliabide ezberdin aurkitu ditzakegu, horien artean gorputz adierazpena bat izanik (Solís, 2018). Gorputz-hizkuntzak hitzezko eta bereziki ez-hitzezko komunikazioan ezinbesteko papera betetzen du, izan ere horrela definitzen du ez-hitzezko komunikazioa Pastor Pradillok (2003): “*komunikazio mezu edo eduki bat transmititzeko erabiltzen diren mugimenduak edo gorputz agerpenak*”. Luengo Sanchezek (2008) ideia hau defendatzen du ere, gorputz-hizkuntza ez-hitzezko komunikazioa pertsonen arteko komunikazioaren lehenengo oinarria dela adieraziz.

Hau behin adierazita gorputzaren eta honekin batera etortzen den komunikazioa ezinbestekoa dela badakigu. Honekin batera haurrek ezagutza berriak bereganatzeko erabiltzen duten oinarritzko tresna da gorputza, eta honek lotura berezi bat dauka jolasarekin. “*El juego es el modo que tiene el niño de pensar, probar,*

*relajarse, trabajar, recordar, competir, investigar, crear, ensimismarse*” (Slade, 1978, p. 54).

Sladek definitu duen jolasa, bete betean eta egoera esanguratsuan emateko hainbat baliabide bete behar dira,

En el origen del juego reside una libertad primera, una necesidad de relajamiento y al mismo tiempo de distracción o capricho. Esta libertad es su motor indispensable y está en el origen de sus formas más complejas y más estrictamente organizadas (Caillois, 1994).

Adierazi den askatasun, errespetu eta lasaitasun hori sentitzen dutenean haurrek libreki jolasteko aukera izaten dute . Goieneche-k (2019) hau gehitzen du: *“Jokuaren bidez sormena eta komunikazioa lantzen dute, norbere gorputza esperimentaziorako iturria delarik, eta honi, jolas dramatikoak deitzen zaio”* (p.11).

Alvarez-Uriak eta Tresserrasek (2014) azpimarratzen duten bezala, **jolas dramatikoak** dramatizatzen ikasten hasteko aukera paregabea da. Izan ere haurren jarrera eta joera dramatikoak aprobetxatzeko aukera dago kasu honetan. Haurrek daukaten joera dramatikoak egiten dituzten jolasetan ikusi daiteke, haurren jolasen artean simulazio jolasak aurkitzen dira, rolak eskatzen dituztenak, jolas dramatikoak eta paradramatikoak (Cervera, 1993). Izan ere dramatizazioak eskatzen dituen beharrezko osagaiak erabiltzen dituzte, hala nola, pertsonaiak, leku bat, gai bat, denboraldi bat eta batzuetan arazo edo gatazka txiki bat.

Jolas dramatikoaren eta dramatizazioaren arteko lotura edo harremana oso estua dela ikusten da, baina honekin batera haurrek sortzen duten jolas sinbolikoa ere elkarrekin doala ikusi daiteke (Gonzalez, 2015) Haur Hezkuntzaren eta dramatizazioaren arteko lotura zuzena eta apurtezina osatuz.

## **2.2 Antzerkia**

Parradok (1992) adierazten duen moduan, antzerkia bakoitzaren errealitatea ezagutzeko eta honetan barneratzeko aukera ezinhobea bat da. Haurrek egoera bakoitzean sortu daitezkeen aukera ezberdinak arakatzeko eta hausnartzeko modu paregabea izanez, honekin batera bakoitzaren mugak ezagutzeko eta bere izaera bete betean osatzeko aukera ematen du.

Augusto Boalek (1998) horrela definitzen zuen antzerkia: “*Antzerkia bere esanahi arkaikoenean, pertsonok gure burua ekintzak egiten behatzeko dugun gaitasuna da. Pertsonok gure emozioetan pentsatzeko eta gure pentsamenduekin emozionatzeko*” (26. orr.). Izan ere, bakoitzak bere barnean dauzkan ezagutzak kanporatzeko, gure burua ikusteko eta bakoitzak bere prozesuan protagonista izateko, Latinetik datorren hitzaz baliatuz, “educere” prozesua azaleratuz.

Antzerkian finkatuz, honetan ematen den hizkuntza edo komunikazio moduari arreta berezia jarri behar zaio. Vincent Tomas (1964, in Tresserras, 2017) baieztatzen duen moduan, “*nuestra sociedad enfatiza el lenguaje basado en las palabras (orales o escritas), pero no el lenguaje del movimiento, los gestos, los sonidos, las líneas y colores que son parte del lenguaje de las distintas manifestaciones artísticas, entre ellas el teatro*” (p. 94).

Idea honekin batera Malaguzzi (2005) aurkitzen da: “*el niño tiene cien lenguas (y además cien cien cien) pero le roban noventa y nueve. La escuela y la cultura le separan la cabeza del cuerpo*”. Izan ere, antzerkiak ideia hauek aurrera eramatera laguntzen du, komunikazio modu ezberdinak azaleratuz eta hauek praktikan jartzeko aukera emanez. Komunikazioarekin batera beste elementu edo alderdi batzuk sartzen dira antzerkiaren barnean, hala nola obra ikusten duen publikoaren adina eta obran irudikatzen den momentu historikoa beste batzuen artean (Trujillo, 2014, 10.orr). Horiek obra bat gauzatzeko hausnarketa prozesuaren barnean daude, elementu batzuen ezagutza eta hauek kontuan hartzea eskatu egiten duelako.

Alderdi hauek alde batera utziz heziketa artistikoaren barnean, antzerki barnean kokatuta hau adierazi behar da. Izan ere, heziketa artistikoari esker, errendimendu akademikoa hobera doa, garapen pertsonala eta autoestimua hobekuntzan ere laguntzen du eta (Moskowitz, 2003 in Tresserras, 2017). Haurren kasuan artea eta heziketa artistikoa beste hizkera edo lenguaia da, ikasteko modu eta bere mundua adierazteko aukera ezberdin bat (Vincent Tomas, 1964).

### **2.3 Irudiak**

Gure gizartean bete betean barneratuta dauden elementuen barnean irudiak daude, eta hauek hezkuntzan era kasu honetan antzerkian presentzia garrantzitsu bat



daukate. Martínez, Monserrat, eta Tur (2012, in Tresserras, 2017) hitzetan haurrek musika, kolorea, irudien edo marrazki bizidunen estimuluengan sentikortasun handia daukate. Honen ondorioz irudiak eta hauen ostean etortzen diren elementu ezberdinen hausnarketa sakon bat egin behar da hezkuntzan. Pérez Tornero (2008) adierazten duen moduan, hezkuntzak begirada alfabetatu behar du eta honekin batera ikus-entzunezko mundua. Hezkuntzaren barnean sartuta Lorrentek (2000) hau egiaztatzen du:

Las imágenes son un componente básico de los materiales educativos, pero en las aulas sólo se atiende a números y palabras. Las imágenes producen y exigen nuevas formas de alfabetización, de intercambio comunicativo, de pensamiento; pero la escuela se centra en la alfabetización tradicional (p. 119).

Gizakiak orokorrean beti irudietaz erakarriak sentitzen gara, ikus-entzunezko euskarriak sentimenduekin konekzio zuzena daukate eta (Ferrés, Are eta Calero, 2005). Irudi bat ikusteak ez du bakarrik zerbait bisuala ikustea esan nahi, komunikazio, adierazpen eta hezkuntza proiektu batean sartzeko aukera ematen du ere.

#### **2.4 Curriculumaren azterketa**

Núñez eta Navarro (2007) adierazten duten moduan antzerkiak eta dramatizazioak curriculumean agertzen diren konpetentzia guztiak lantzeko aukera ematen dute. Hau behin adierazita Abenduaren 22ko 237/2015 dekretuan zentratuko gara eta hau ardatz moduan erabiliko dugu lan honen barnean dagoen obrarekin dauzkagun helburuak eta edukiak adierazteko.

Hezkuntzan bi eremu bereizten ditu, "*Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezagueraren eremua*" eta "*Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpenaren eremua*". Proiektu honetan bi eremuetan sartzeko aukera ikusten da.

Hau behin adierazita, proiektu edo jarduera multzo honen **helburuak** honako hauek dira. Adieraziko diren helburuak 4 multzo orokor ezberdinetan banatuta daude, hauek helburu zehatzetan hedatuz eta osatuz.

*Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.*

- Haur bakoitzaren ezaguera eta errespetua:
  - Ohartzea norbera pertsona berezia dela eta nor bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna eraikitzeko.
  - Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.
  - Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatzeko-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.
  
- Ezberdinen arteko komunikazioa eta interakzioa:
  - Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrietara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.

*Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpenaren eremua*

- Hizkuntzaren ezaguera eta erabilpena:

- Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrietarako, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko
- Hizkuntza ofizialetan eta inguruneko hizkuntza askotarikoetan komunikatzeko jarrera irekia izatea, beste errealitate eta kultura batzuk deskubritu eta errespetatzeko.

- Arte hezkuntzaren ezaguera:

- Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea,

askotariko teknikak erabilia, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.

Helburuak behin adierazita, hauek kontuan izango ditugu landuko ditugun **edukiak** zehazteko. Adieraziko diren edukiak 6 multzo orokor ezberdinetan banatuta daude, hauek helburu zehatzetan hedatuz eta osatuz.

*Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.*

- Nortasuna eraikitzea:

- Zentzumenak gorputza eta kanpo-errealitatea arakatzeko erabiltzea eta zer sentsazio eta pertzepzio izaten dituen ezagutzea.
- Jolasaren bidez (jolas motor, zentzumenezko, sinboliko eta arautuen bidez) arakatzeko ingurunea. Disfrutatze eta harremanak izateko bitarteko gisa balioestea jolasa.

- Hartu-emanak gizarte-ingurunean:

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea.
- Afektu eta enpatiaz osatuta dauden harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea.

- Hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin:

- Izaki bizidunen portaera, funtzio, ezaugarri eta aldaketa batzuk ezagutzea. Jaiotzaren eta heriotzaren bitarteko bizi-ziklora hurbiltzea. Izaki bizidunen gaineko aieru edo konjeturak egitea.
- Teknologia gailuak erabiltzen hastea, ikasten eta komunikatzen laguntzeko.

*Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpenaren eremua*

- Hitzezko eta idatzizko komunikazioa:

- Liburutegia erabiltzen hastea eta hura informatzeko, ikasteko, entretenitzeko eta gozatzeko baliabidea dela balioestea.

- Gorputz hizkuntza:

- Gorputza eta mugimenduak egokitzea, adierazpenak egin edo komunikatzeko asmoarekin, pertsonen, espazioen, denboraren eta objektuen ezaugarrien arabera.
- Dramatizazio eta imitazioko jolasetan, dantzetan eta gorputz-adierazpena darabilten bestelako jolas-jardueretan parte hartzea.

- Arte-komunikazioko beste modu batzuk:

- Hizkuntza plastikoaren zenbait elementu deskubritzea eta probatzea (linea, forma, kolorea, egitura, espazioa, etab.).
- Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.
- Proiektu kolektiboak egiten parte hartzea eta inguruneko arte-ekoizpenen gaineko interesa izatea.
- Arteko trebetasun eta teknika oinarrizkoak erabiltzen hastea.

Materialak probatzea eta ekoizpen plastikoak egitea askotariko materialak eta teknikak erabilia.

## **2.5 Hezitzaileen rola eta formakuntza**

Hezitzaile baten formakuntza klabea da bakoitzaren rola eta eginkizunak zehazteko, honekin batera hezitzaileek haurrei eskaini ahal dizkieten teknika edota baliabide ezberdinak hausnartzeko gaitasunean zentratzen dira ere. Behatzen den proiektu honetan, ikasgela batean eman ahal diren gertaerak aztertu eta bakoitzaren aurrean egon ahal diren erantzunak hausnartzen dira, horren ondorioz praktika dramatikoak ideia hauetan oinarritzea proposatuz.

Honekin batera, hainbat autore (resserras, 2019; Bizkarra, 2020) dramatizazioan aditu bat egotea planteatzen dute, honela baliabide artistiko guztien

arteko eta artistikoak ez direnen arteko inklusio bat egon daiteke. Berecebal (2007, in Sanchez Gala, 2007) adierazten duen moduan, egoera edo gai gehienak dramatizatu ahal dira eta honek informazio edo baliabide berriak eta erabilgarriak eskaini ahal dizkie taldeari (193. orr).

Honen ondorioz Aristizabal-ek (2014) baieztatu duen moduan, Haur Hezkuntzako Graduak Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren Bidez Minorra planteatu zuen. Irakasleen formakuntza hobetzeko helburuarekin eta hizkuntza edo mintzaira ezberdinak erabilita haurren beharrak ulertzeko planteamenduarekin. Haurrek haien pentsamenduak irudikatzeko hainbat era erabiltzen dituzte, bakoitzaren izaera eta egoeraren ondorioz, hezitzaile moduan hauek ulertzeko gaitasuna izan behar dugu, honek hainbat teknika ezberdin erabiltzea eta hauek ulertzea eskatu egiten du.

Bordak (2015) honako hau planteatzen du, alderdi afektiboa, pertzeptiboa, psikomotorra, soziala eta hitzezkoa irakasleen formakuntza dramatikoan integratzea. Praktika dramatikoak hausnartzeko lekua ematen du eta, ikasleek dauzkaten ideia eta ezagutza ezberdinak irudikatuz eta honekin batera, hezitzaileak daukan gaitasun emozionalean lagunduz. Ez da bakarrik haurren konpetentzia emozionalak identifikatzen jakitea, baizik eta hezitzaileenak, bakoitzarenak. Izan ere haur baten sentimenduak identifikatzeko eta hauek azaleratzen laguntzeko, bakoitzarenak identifikatzea eta hauek azaleratzea eskatzen du. Lehenengo hezitzaileen hezkuntza emozionala ikasi behar dute hurrei hau irakasteko gai izateko.

Proposamen hauek haurren arteko eta hezitzaileen arteko elkarrekintzetan ematen diren sentimenduen ondorioen ikaskuntza planteatzen da (Aristizabal, 2014). Gelaren barnean dauden pertsonen arteko harreman osasuntsuak edukitzeak bakoitzaren arteko konfiantzan islatu egiten da. Giro egokia izateak benetako ikaskuntza bat egotea laguntzen du, haurrek segurtasun egoera eta leku batean daudela sentitzea.

## **2.6 Adierazpena eta Komunikazio Trebetasuna**

Adierazpen eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorrenen barnean hainbat ikasgai batu egiten dira, horien artean Adierazpen eta Komunikazio Trebetasuna. Goyenechek (2019) honela definitzen du:

*Jarduera dramatikoa adierazpenari oso lotuta dagoenez, honen funtzio nagusia, haurrak bere buruan konfiantza gehiago izatea eta komunikazio ahalmena garatzea da. Alabaina, alfabetatze estetikoa ere lantzen du, bereziki, emozioak, kultura, historia eta pedagogia, kritikotasuna, sormena eta harremanak garatuz.*

Komunikazio ahalmenaren garapena sustatzea proiektu honen helburuen artean adierazten da, izan ere honek Haur Hezkuntzan daukan garrantzia ezinbestekoa da, honekin batera heldutzen diren heinean komunikazio modu anitzak garatzeko gaitasuna izango dute, beti ere, garrantzitsua da oinarri on bat izatea, prozesua esanguratsua izateko. Malaguzzik (2005) hau aipatzen du:

El niño está hecho de cien. El niño tiene cien lenguas, cien manos, cien pensamientos, cien maneras de pensar, de jugar y de hablar, cien siempre, cien maneras de escuchar, de sorprenderse, de amar, cien alegrías para cantar y entender, cien mundos que descubrir, cien mundos que inventar, cien mundos que soñar.

Honekin batera dramatizazio txikiak egiteko aukera egon da urtean zehar, hauei esker adierazpena bilatu egiten da, partaideek pentsatutako egoerak birsortu egiten dira eta parte hartzen duten pertsonen jolasteko gogoak eragina dute bata bestearengan (Eines eta Mantovani, 1997). Orokorrean egon diren jarduerak eta ezagutza ezberdinak lagungarriak izan dira proiektu hau aurrera emateko orduan, emaitzetan islatuko den bezala.

Ikasgai honen barnean proiektu berezi bat lantzeko eta taldeka sortzeko aukera izaten da, Zapalduaren Antzerkia deituriko metodologia baten bidez, hain zuzen.

### **2.6.1. Zapalduen Antzerkia**

Zapalduen antzerkia, Augusto Boal 1960 urteen inguruan sistematizatu zuen jarduera artistiko eta teatral bat da. Boal entzat sentitzeko, pentsatzeko, modu ezberdinetan jarduteko aukera ematen du antzerkiak (Tejerina, 2005). Boalek (1974) baieztatzen duen moduan, antzerkiak gizarteko kausak eta honetan ematen ziren bizipenak aztertzen lagundu behar du, ikuslearen parte-hartze aktiboa bilatuz. Izan ere, antzerkiak ematen duen sentitzeko, pentsatzeko eta ezberdin jokatzeko aukerak baliatuz, gizartean ematen diren arazo edo bizipenak dramatizatzeko aukera egongo da.

Honen barnean **antzerki foroa** aurkitzen da, antzerki mota honen funtsezko baldintza ikusleak ekintza dramatikoaren protagonista izatea da, bere bizitza propioaren protagonista izateko prestatuz (Motos, 2009 in Arrillaga, 2020). Parte-hartzen duten pertsonen arazo sozial bat kontatzen duen istorio bat antzezteko eskatzen zaie. Denbora labur batean prestatu egiten dute eta 10-15 minutuko antzezlan txiki bat aurrera eramaten dute, honen ostean antzeztu den arazo horren konponbidea eztabaidatuko da konponbide bat bilatzeko asmoz (Boal, 1974).

### 3. HELBURUAK

Gradu amaierako lan honen helburu nagusiak hauek dira:

- Haur Hezkuntzako Adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidez minorrean diseinatutako k6a, errealitatean aplikatzea eta aurrera eramatea.
- Haur Hezkuntzako Adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidez minorrean diseinatutako k6aren ondorioen analisi sakon bat egitea.
- Dramatizazioaren bidezko ikaskuntza Haur Hezkuntzan sustatzea.
- Sentimenduak eta pentsamenduak adierazteko hizkuntza eta metodo gehiago hurrei eskaintzea.



## 4. METODOA

### 4.1.- Abiapuntu metodologikoa: etnografia

Etnografia izango da erabiliko den abiapuntu metodologikoa. Serrak (2004) adierazten duen moduan, etnografia terminoak ikerketa lanean zehar egindako prozesuari, lanari eta ikerketa forma ezberdinei egiten dio erreferentzia. Honek azterketa deskribatzaile eta teorikoa egitera bideratzen du, aztertu nahi diren kulturaren alderdi batzuetara bideratuta.

Kasu honetan ikerketa lan hau hezkuntza arloan egingo da, aurrera eramango den proiektuaren ondorioz. Torres (1988) baieztatzen duen moduan, hezkuntza eremuan finkatuta, etnografiaren objektua egunerokotasunean geletan ematen dena azalerratea da. Datu adierazgarriak erabiliz eta deskripzio ugari gehituz, gero hauek osotasun batean interpretatzeko eta ulertzeko. Izan ere hezkuntzaren barnean etnografia bat gauzatzeko, ahal diren datu kopuru gehien batu behar dira, horiek konparatuz errealitatea benetan irudikatu nahian. Datu hauek batzeko, behaketa eta jarduerak gauzatea ezinbestekoa izan da. Serra-ren (2004) hitzetan: *“El trabajo de campo y la observación participante han sido claves para la realización de muchos trabajos etnográficos”*.

Proiektu honek aurrera eramango duen abiapuntu metodologikoaren ondorioz, eta hauek lortzeko aplikatu diren jarduerari eta behaketei ezker, benetako eta esanguratsuak diren emaitzak aterako dira, izan ere, Hamersley eta Atkinson (2005) baieztatzen duten moduan: *“el principal objetivo de la investigación es, y debe seguir siendo, la producción de conocimiento”*.

### 4.3.- Erabilitako tresnak

Inclan (in Serra, 2004) egiten duen planteamenduan hainbat tresna ezberdin erabiltzeko beharra planteatzen du, metodologia etnografikoan lortu behar diren datuak batzeko.

Kasu honetan, informazioa eta datuak batzeko hainbat tresna ezberdin erabili dira informazio osatuago lortzeko asmoarekin.

- Landa koadernoak: Unibertsitateko praktiketan egiten nituen jarduera eta gertaeren berri landa koadernoan idazten nuen, honekin batera antzezpena egin baino lehen, antzezpena eta ostean egin ziren jardueren eta hausnarketen ondorioak jaso nituen.
- Argazkiak: Prozesuan zehar ateratako argazkiak dira, jarduera ezberdinak eta antzezpenean ateratakoak.
- Bideoak: Antzezpena grabatu zen, izan ere ondorio zehatzagoak eta momentuan ikusten ez diren detaileak ikusteko balio izan du.
- Elkarrizketak: Elkarrizketak hurrekin eta bereziki antzezpenean parte hartzen duten klasekideekin egin ziren, bai antzezpenearen aurretik eta ostean, bakoitzak geneuzkan ideiak eta ondorioak adieraziz.

## **5. EMAITZAK**

### **5.1.- Adierazpena eta Komunikazio Trebetasuna ikasgaiari esker bereganatutako gaitasunak.**

Hainbat izan dira Adierazpen eta Komunikazio Trebetasuna ikasgaiari esker bereganatutako gaitasunak, haien artean hauek ezberdintzen dira.

- Ahotsa, gorputza eta adierazpen integrala: Ahotsaren bolumena, intonazioa eta honi eman behar diogun intentzioa kontrolatzeko gaitasuna. Honekin batera eta ahotsari laguntzeko gorputzaren mugimendua, aurpegiaren keinuan eta gorputzaren barnean erabiltzeko aukera dauzkagun gorputz-adar guztiak. Bi item hauek elkartzeko eta haien arteko adierazpen integrala sustatzeko.
- Dramatizazio teknika ezberdinak: Haur hezkuntzako haurrentzat bideratuta dauden joku ezberdinetan oinarrituta, dramatizazio teknikak aurrera eramateko baliabide ezberdinak.
- Espazio eszenikoa: Honek antzezlan batean daukan garrantzia azpimarratu da, obraren elementu ezberdinen gainean daukan eragina eta antzezpen bat sortzeko kontuan izan behar diren ezaugarriak.
- Zapalduen Antzerkia eta Antzerki Foroa: Arazo sozialak beste ikuspuntu batetik hausnartzeko eta haietan lan egiteko aukera, modu errealista eta bisual bat izanez eta honek, Haur Hezkuntzan haurrekin erabiltzeko aproposa bihurtuz.

### **5.2.- Proiektu pedagogiko artistikoa.**

Proiektu honen barnean hainbat atal ezberdindu daitezke, horien artean obra aurkeztea, obra aurretiko eta osteko momentuak. Prozesu luzea eta hausnarketa sakona daukan obra hau, 5 urteko haurrentzat prestatuta dago. Honekin lortu nahi den helburu nagusia ikasturtean zehar taldean sortutako proiektua benetako Haur Hezkuntzako klase batera eramatea da, gure ikaskuntzak finkatzeko edo sendotzeko eta bizi izan dugun prozesu guztiari bukaera borobil bat emateko.

Proiektuak emakume baten istorioa isladatzen du, margolaria zena eta emakumea izateagatik bere burua izkutatu behar izan zuena. Gaur egun margolari oso garrantzitsu bat bihurtu izan da, bere izena museo oso garrantzitsuetan agertuz. Margolaria Hilma Alf Klint da, beraz, bere istorioa ikusten da obran. Antzezpen autobiografiko baten moduan ikusi daiteke, bere arrebaren heriotzak izan zituen ondorioak adieraziz eta bereziki bere obra garrantzitsuena sortzeko prozesua irudikatuz. (8.2 eranskina)

### **5.2.1- “Emakume margolariaren historia” antzezipena baino lehen.**

Obra aurrera eraman baino lehen prestaketa momentu edo prozesu bat planteatu da benetako ulermen, eta umeez ezagutza bat jaso dezaten prozesuan zehar. Honen luzeera bi astekoa izan da, arlo ezberdinak planteatuz eta haurren beharretara eta nahietara moldatuz.

#### a. Gure itzala.

1. JARDUERA	
Landutako helburu orokorrak	Haur bakoitzaren ezaguera eta errespetua. Ezberdinen arteko komunikazioa eta interakzioa. Arte-hezkuntzaren ezaguera.
Landutako eduki orokorrak	Nortasuna eraikitzea Hartu-emanak gizarte-ingurunean Gorputz hizkuntza Arte-komunikazioko beste modu batzuk
Materiala	Tizak
Denbora	30 minutu, hala ere luzatzeko aukera dago.
Lekua	Patioa
<b>GURE ITZALA</b> Patioan kokatuko da jarduera egun eguzkitsu batean, azken hau ezinbestekoa izanda. Eguzkiak patioan dauden objektuen itzala aprobetxatuko dute eta azken hauek markatuko dituzte, geroago eguzkia mugitzen den heinean itzalen mugimendua grafikoki ikusteko aukera izango dute.	

Honekin batera haien gorputzekin forma ezberdinak egingo dituzte, beste haurren laguntzaz sortutako formen itzala lurrean ikusiz.

#### ONDORIOAK

Haurren parte-hartzea ezinhobea izan zen, hasieran ulertzeko denbora bat behar izan zuten baina azaltzeko modu ezberdinak erabili ostean primeran ulertu zuten. Haien artean elkar laguntzeko prest zeuden, izan ere taldeko lana eskatzen zuen pertsona baten itzala lurrean margotzea.

Patioan zeuden zuhaitzen itzala markatzeak lagundu zuen itzalaren mugimendua ulertzen, bizi-bizian ikusteko gai izan ziren eta.

Berez jarduera patio aurretiko momentu batean planteatuta zegoen, 30 minutukoa izan ere. Baina hain gustura egon ziren patio orduan honekin jarraitzeko eskatu zutela, haien artean itzalak marraztuz eta hezitzaileen parte hartzearekin. (8.1 eranskina)

b. Oihalen itzala.

2. JARDUERA	
Landutako helburu orokorrak	Haur bakoitzaren ezaguera eta errespetua. Ezberdinen arteko komunikazioa eta interakzioa. Arte-hezkuntzaren ezaguera.
Landutako eduki orokorrak	Nortasuna eraikitzea Hartu-emanak gizarte-ingurunean Hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin Gorputz hizkuntza Arte-komunikazioko beste modu batzuk
Materiala	Oihal bat Argiak
Denbora	20 minutu talde bakoitza
Lekua	Klasean
<b>OIHALEAN ITZALAK</b> Klasean kokatuta lehenengo jardueran ematen den egoera berriro errepikatzeko helburuarekin egiten da. Dena ilun egonda, oihal bat zintzilikatu eta atzean argi bat jarri egiten da, argia piztuz itzalak sortzea	

oihalaren atzean oso erraza izango da, beraz haurrak txandakatuz oihalaren atzean jarriko dira forma ezberdinak sortuz, mimika eginez, oihalaren atzetik dagoen pertsona asmatuz etab. Honekin batera distantziak kalkulatzeko aprobeztatuko da, itzal txikia eta handiak sortuz haurren kokapenaren arabera.

#### ONDORIOAK

Jarduera hau patioan egin zenaren ostean jarduteko planteatua zegoen, itzalen gai guztiz berria ez izateko haientzat. Gela bi taldetan banatu genuen, lehenengo taldea klasetik kanpo beste jarduera bat egiten zuten bitartean, aldi berean beste taldea klasean geratzen zen jarduera hau egiten. Aurpegia aldatzen zitzaien gela osoa iluna ikusiz, bat batean lanpara pizten genuen eta begirada bete betean argira eramaten zuten. Hasieran oihalaren atzean gertatzen zena ez zuten oso ondo ulertzen baina haiek frogatu zutenean dena poza zen, haurren parte-hartzea etengabekoa zen eta oihalaren atzean zegoena momentuoro ikusi nahi zuten, hau pixka bat kontrolatzea zaila izan zen ere.

c. Zer da artea?

3. JARDUERA	
Landutako helburu orokorrak	Haur bakoitzaren ezaguera eta errespetua. Hizkuntzaren ezaguera eta erabilpena.
Landutako eduki orokorrak	Nortasuna eraikitzea Hartu-emanak gizarte-ingurunean Hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin
Materiala	Kartulina Rotulkiak
Denbora	20 minutu
Lekua	Klaseko atalean, asanbladan.

#### ZER DA ARTEA?

Galdera hau asanbladan egonda planteatuko da, zer da artea? Haurrek galdera honen erantzunak edo ideiak botako dituzte, haien ezagutzen arabera. Erantzun hauek kartulina batean apuntatuko dira, "brain storming" bat planteatuz eta aurre ezagutzak zehaztuz.

<p><b>ONDORIOAK</b></p> <p>Momentu egokian planteatu zen jarduera, izan ere Artium-era joan behar zirenez aurretiko prestakuntza txiki bat izan zuten eta artearen inguruan hitz egiteko Artium-eko bi hezitzaile etorri ziren. Jarduera hau eta klasean lantzen diren ideiak lotuz, galdera hori nahiko ondo erantzuteko aukera izan zuten. Parte-hartzea ez zen izan oso ugaria, haur batzuk beste batzuk baino ezagutza gehiago zituzten eta hauen parte-hartzea ugariagoa izan zen.</p> <p>Honekin batera jarduera asanbladan egin zen, jakin badakigu haur guztiak ezberdinak direla eta batzuk beste batzuekin konparatuta lotsatiagoak dira, hau parte-hartzean nabaritu zen ere.</p> <p>Orokorrean informazio ugari lortu genuen, ideia guztiak kartulina batean apuntatu eta paretan jarri genuen ideien kartulina.</p>

d. Gure obrak.

4. JARDUERA	
Landutako helburu orokorrak	Haur bakoitzaren ezaguera eta errespetua. Ezberdinen arteko komunikazioa eta interakzioa. Hizkuntzaren ezaguera eta erabilpena. Arte-hezkuntzaren ezaguera.
Landutako eduki orokorrak	Nortasuna eraikitzea Hartu-emanak gizarte-ingurunean Arte-komunikazioko beste modu batzuk
Materiala	Papera Pintzelak Tenperak
Denbora	1. atala: Jarduera librea da, haur bakoitzak behar duen eta duen denbora. 2. atala: 10 minutu.
Lekua	1. atala: Klasean txokoetan jolastean. 2. atala: Asanbladan.

## GURE OBRAK

### 1. atala:

Asanbladan hurrengoia planteatuko da, Artiumera joan direla aprobetxatuz obrak eta haien artistak aipatuko dira, estilo eta baliabide ezberdinak adieraziz.

Hau behin eginda, haiek modu librean arte txokoan sortzen dituzten artelanei izenburua jartzea planteatuko zaie, honekin batera artelanaren edo obraren esanahia edo helburua adieraztea.

### 2. atala:

Bigarren atal honetan asanbladan hurrek egin dituzten artelanak aurkeztuko dira, haur bakoitzak bere obra azalduz eta aurkeztuz.

## ONDORIOAK

Lehen adierazi behar dena da jarduera hau ez zela derrigorrezkoa, haur bakoitzaren interesak errespetatu nahi genituen. Gela berez txokoetan banatuta dago eta haien artean, arte txokoa dago kokatuta.

Hurrek libreki jardun ahal dira txokoetan zehar, beraz, jarduera hau librea izatea planteatu zen.

Parte-hartzea beraz ez zen oso ugaria izan, bakarrik arte txokoan gehien zeuden hurrek parte-hartu zuten. Egiten zuten artelanari izena jartzea berria zen haientzat eta bere obretan idazteko aukera topatu zuten, egiten zuten obraren inguruan pentsatu eta zerbaitekin lotzen zuten, hala nola, maitasuna, ostadarra etab.

e. Horrela da bizitza. Regaliz.

5. JARDUERA	
Landutako helburu orokorrak	Haur bakoitzaren ezaguera eta errespetua. Ezberdinen arteko komunikazioa eta interakzioa. Hizkuntzaren ezaguera eta erabilpena.
Landutako eduki orokorrak	Nortasuna eraikitzea Hartu-emanak gizarte-ingurunean Hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin Hitzezko eta idatzizko komunikazioa
Materiala	Ipuinak
Denbora	30 minutu



Lekua	Liburutegi momentuan.
<p><b>HORRELA DA BIZITZA</b></p> <p>Heriotza lantzeko beharra ikusten da, honen ondorioz “Horrela da bizitza” ipuina landu egingo da. Hau kontatuz eta bukatzean heriotzari buruzko hausnarketa eta eztabaida izango dugu, bakoitzak bizitakoa adieraziz, horri buruz hitz eginez eta heriotzaren gaia normalizatuz.</p> <p>Honekin batera “Regaliz” ipuina aipatuko da eta liburutegi txokoan jarriko da “Horrela da bizitza” liburuarekin batera, haurren esku.</p>	
<p><b>ONDORIOAK</b></p> <p>Gai hau sartzeari beharrezkoa ikusi nuen, izan ere normalean lantzen ez den gai delako eta obra bete betean ematen delako. Hau lantzeko modu asko daude baina liburu bat irakurtzea planteatu nuen liburutegi momentua aprobetxatuz eta hausnarketa momentua bermatuz.</p> <p>Normalean liburutegi momentua nahiko mugitua izaten da, izan ere jantoki ostean planteatzen delako eta “mugimendu momentu” batetik etortzen direlako.</p> <p>Liburua bi aldiz irakurri behar izan nuen, izan ere lehenengo aldiaren haurren arreta ez zegoen liburuan, baizik eta jantokian izan zuten jolas batetan. Beraz, beste momentu bat hartu eta berriro irakurri nuen, justu liburua bukatzean haur batek hau esan zuen “mi abuelo se murió hace poco”.</p> <p>Idea hori bota ostean haurrek galderak egiten hasi ziren eta hausnarketa momentu polit bat sortu zen, izan ere haiek izan ziren esan zutenak normala dela triste sentitzea hori gertatzen denean eta pixkanaka eta lagun laguntzarekin berriro pozik jarriko garela.</p>	

### **5.2.1- “Emakume margolariaren istorioa” antzezpena.**

Lehen adierazi den moduan, 5 urteko haurrentzat bideratuta dagoen obra bat da, beraz praktikan 5 urteko gelan nengoela aprobetxatu zen. Behin aurretiko jardueran eginda antzezpenaz disfrutatzea egokitu zitzaion. Obra 30 minutukoa izan zen eta psikomotrizitate gelan aurrera eramanez, hainbat izan ziren etorri ziren haurrak eta hezitzaileak. Honetan ematen ziren momentuzko erreakzioak hobeto identifikatzeko antzezpena grabatu zen eta argazki batzuk (8.3 eranskina) atera ziren ere, hala ere adierazi behar da ez zirela haurren aurpegiak agertzen beraien intimitate-eskubidea errespetatzeko eta betetzeko.

Antzezpena bukatu ostean, haiekin hitz egiteko momentua aprobetxatu genuen, ulertu zutela egiaztatzeko eta zituzten dudak argitzeko. Haurren artean erabat ulertu

zutenak zeuden, aurretiko jarduera guztietara etorri ziren eta, honekin batera beste batzuk ez ziren giroan sartu eta bidean galdu ziren. Hala ere ondorio gehiago adieraziko dira hurrengo ataletan.

### **5.2.2- “Emakume margolariaren istorioa” eskola baten errealitatera eramatea.**

Haurrentzat bideratuak dauden arte produkzioak ez daude oso hedatuta gaur egun eta euskarazkoak direnak gutxiago. Teatro Paraiso osatzen duten profesionalei eskerrak eman behar dizkiegu hau aurrera eramateko eta modu batean edo bestean guztiak inspiratzeko gai izateak, haurrak zein helduak artea disfrutatzeko aukera izateko. “¿Qué es el arte y para quién es?, ¿quién decide que esto es arte y aquello no?” (Fallon, 2013, p. 13).

Dramatizazioak Haur Hezkuntzan duen garrantzia adierazi ostean, hau pertsonalki errealitatera eramateko gai izateak, zoragarria eta beldurgarria izan da. Alde batetik, esperientzia berriak bizitzeko eta haurren aurpegiak ikusteko aukera izan nuen moduan, beste aldetik presio erraldoia sentitzen nuen nire buruan.

Hainbeste dira antzezpen bat beste leku batean antzezteko pentsatu behar diren alderdiak; hala nola lekua, materialak...eta bereziki haurren testuingurua. Azken honek prestatuta zegoen gidoia aldatzeak eskatu egiten zuen, honekin batera aurretiko jarduerak egitea eta haurrak prozesua ulertzeko eta disfrutatzeko baliabide ezberdinak eskaintzea.

### **5.2.2.- Moldaketak.**

Obra aurrera eramateko eguna ailegatu zen, berez 5 urteko haurrentzat prestatuta zegoen obra da baina moldaketa txiki batzuk egin genituen gidioan haurrentzat eta egoerarentzat moldatuak.

#### Lehenengo gidoi moldaketa:

<p>CINCO4: Ez dut ulertzen zergatik emakumeoi desberdin ikusten gaituzten... Espero dut hurrengo belaunaldietan egoera hau aldatzea eta guk bezalako</p>
--

emakumeek marrazteko aukera izatea... Hala ere, egiten dugunaz harro egon behar dugu!

Esaldi hau nahiko luzea eta korapilatsua zen haurrek zeukaten euskara maila kontuan hartuz, beraz honela adieraztea pentsatu zen;

CINCO4: Ez dut ulertzen zergatik emakumeoi desberdin ikusten gaituzten... Espero dut zuek (*haurrei begiratzuz*) emakumeak edo gizonak izan, marrazteko aukera izatea... Hala ere, egiten dugunaz harro egon behar dugu!

Bigarren gidoi moldaketa:

6. ESZENA:

*(Bat batean gizon bat sartzen da, proiektu bat proposatzeko asmoarekin.)*

GIZONA: Kaixo, Rudolf naiz. (*publikoari begira*)

*( Neskei begiratzan die orain)*

- Proposamen bat daukat zuentzat, proiektu handi bat egiteko aukera duzue, proiektu erraldoi bat! Denbora asko eskaintzen duen proiektua, oso garrantzitsua, zuen bizitza aldatuko duena.

Honekin arazo berdina geneukan, gainera muxukoak erabiltzearen ondorioz haurrek mugimendu gehiago behar zuten eta hiztegi edo elkarrizketa gutxiago, beraz honela geratu zen;

6. ESZENA:

*(Bat batean gizon bat sartzen da, proiektu bat proposatzeko asmoarekin.)*

GIZONA: Kaixo, Rudolf naiz. (*publikoari begira*)

*( Neskei begiratzan die orain)*

- Proiektu handi bat daukat zuentzat, proiektu erraldoi bat! Oso garrantzitsua, zuen bizitza aldatuko duena.

Hirugarren gidoi moldaketa:

9. ESZENA: Gizonak bukaera emanez kontatu Hilmak pasa duena; 20 urte pasa dira hil zenetik eta publikatu berriak dira. Abstrakzioa sortu duen emakumea, baina boterea. Koadroa Ionaren atzetik egotetik, aurrean egotera pasatzen da.

GIZONA: Aspaldiko! Hilma duela 20 urte hil zen, zorionez bere obrak ikusi ahal ditugu. Begira begira!

(Musika alaia baxua)

(Iona seinatu eta koadro garrantzitsua jarri markoarekin)

(gizona ibili lehenengo retroproiektore eta piztu)

GIZONA: Hau, New York-eko museo batean egin zuen erakusketa.

(ibili eta bigarren eretroproiektorea piztu)

GIZONA: Honako hau Suetziako esposizioan egon zen.

(ibili eta 3. eretroproiektua piztu)

GIZONA: Malagan

(ibili eta 4. eretroproiektua piztu)

GIZONA: Eta Parisen.

GIZONA: Disfrutatu.

Bederatzigarren eszena hau erabat aldatu behar izan genuen, izan ere ez geneuzkan gure esku hainbeste proiektore amaiera paregabe hau berriz osatzeko. Honen ondorioz bakarrik oihalean obra erreproduzitzearekin konformatu behar izan ginen.

Antzezlanaren bukaera ematen den obren erakusketen lekuak aldatu genituen ere, haiek hurbil zituzten lekuekin lotuz eta haiengan inpaktu handiago bat azaleratuz.

Material moldaketa:

10. ESZENA: Gizonak bukaera emanez kontatu Hilmak pasa duena; 20 urte pasa dira hil zenetik eta publikatu berriak dira. Abstrakzioa sortu duen emakumea, baina boterea. Koadroa Ionaren atzetik egotetik, aurrean egotera pasatzen da.

GIZONA: Aspaldiko! Hilma duela 20 urte hil zen, zorionez bere obrak ikusi ahal ditugu. Begira begira!

(Musika alaia baxua)

(Iona seinalatu eta koadro garrantzitsua jarri markoarekin)

(Lonan zegoen koadroa aldatu)

GIZONA: Hau, Bilboko museo batean egin zuen erakusketa.

(Lonan zegoen koadroa aldatu)

GIZONA: Honako hau Artium-eko esposizioan egon zen.

(Lonan zegoen koadroa aldatu)

GIZONA: Madrilén!

GIZONA: Disfrutatu.

**5.2.3.- Aldez aurretiko itxaropenak.**

Buruan daukazu idea eta errealitatean ematen den egoera batzuetan berdina izaten da, sentimenduekin lotzen baldin badugu gustura eta eroso sentitzearekin lotzen dut nire kasuan, dena ezin hobe aterako den ideiarekin, perfektioarekin. Orokorrean perfektioa bilatzen dudana pertsona bat naizela adierazi dezaket, beti detaile ezberdinak aldatuz eta guztia prest izanda, honek nire buruan gertatuko denaren ideia utopiko bat sortzea eragiten du normalean, dena nik imaginatu dudana bezala aterata.

Kasu honetan talde lan batean kokatzen eta oinarritzen da obra, beraz guztien laguntzarekin eta talde giro paregabe bat sortuz aurrera eramango dugu. Ikasturtearen hasieratik talde ona sortzea lortu genuen, guztien artean errespetatzea eta ahal dugun moduan bata besteari laguntzea. Hau aurrera eraman ditugun lan eta antzezpenetan isladatu egin da, beraz honetan ere hau ikustea espero da.

“Emakume margolariaren istorioa”-ren obran finkatzen bagara, lehenengo aldiz gure klasekideen artean obra elkarbanatu genuenean izan nuen sentsazio berdina izatea espero nuen, gutxienez. Giro aparta sortu zen, sentimendu ezberdinak azalerratz eta klasekideen begiradetan antzeztu zenarekiko ulermena ikusiz. Talde moduan bizi genituen beldurrak, urduritasuna eta gozamina errepikatuz eta antzezpenaren momentuan primeran sentituz.

Ezberdina izaten da obra bat helduentzat edo benetan planteatuta dagoen publikora antzeztea, kasu honetan haurren begiradak ikustea eta haiekin disfrutatzea espero dut. Alde batetik sortu ahal diren egoerak eta pentsamenduak bizitzea eta haietan sartzea polita izan daitekela pentsatzen dut, antzezpen bakoitza mundu ezberdin bat izanez eta beti zerbait berri ikasiz.

Beste aldetik, beti zaila da kontzentrazioa mantentzea haurren aurrean, izan ere beti egongo delako parte-hartze momentu bat, komentario bat... eta niri pertsonalki hori zaila egiten zait. Kasu honetan praktikak egiten ari naizen klasearen aurrean antzezpena egingo da eta hori gehiegizko konfiantza izateak ematen du, errespetu giro baten barruan.

Azkenik, sortu den proiektuari zentzua aurkitzea espero dut haurren partetik, aurretik egin diren jardurekin lotzea eta esperientzia honetaz disfrutatzea.

#### **5.2.4.- Prozesu burokratiko.**

Proiektuaren ideia planteatu zenetik aurrera eramatea lortu dugun arte hainbat pausu, momentu eta prozesu ezberdin egon dira.

Hasiera batean taldekideen baimena lortu behar nuen, ideia azalduz eta antzezpena haurren aurrean egingo genuela adieraziz. Hau behin lortuta **Unibertsitatean** praktikak antolatzen zituen pertsonaren baimena behar genuen.

Hau behin lortuta antzezpenean parte hartuko zuten ikasle guztien **praktikako tutoreen** onarpenaren zain geratu ginen. Izan ere haiek praktiketan zeuden ikastetxeko egun bat Samaniego ikastetxean egin behar izan zuten, ordu berdinak betez, baina leku ezberdinean aurrera eramanez. Pausu hau nahiko zaila izan zen, izan ere gaur egun daukagun egoera (Covid-19) ez zuen laguntzen, talde burbuilak errespetatu behar ziren eta neurriak oso finkatuak zeuden. Hainbat aldiz bakoitzak bere tutorekin hitz egin ondoren, lortu genuen baimena ematea.

Honen ostean Samaniego **ikastetxearen** baimena behar genuen, beraz zuzendariarekin hitz egin nuen proiektua azalduz eta momentuan baietz-a eman zidan, hala ere arazo txiki batekin topatzen ginen, antzezpenaren lekua. Lehen adierazi dudan Covid egoeraren ondorioz, antzezpenak egiteko erabiltzen zuten aretoa jantoki moduan erabiltzen ari ziren momentu horretan, beraz beste leku bat aurkitu behar genuen. Kasu honetan Haur Hezkuntzako psikomotrizitate gelan egiteko aukera eman zigun.

Hurrengo pausua Samaniegon neukan **tutorearekin** hitz egitea zen, ideia paregabea iruditu zitzaion haurrei horrelako proiektuan barneratzea, eta bere laguntza eskaini zuen behar genuen momentuetarako.

Azkenik egun bat finkatzea geratzen zen, hasieran guztion artean eta psikomotrizitate gelaren ordutegia kontuan hartuta, data aukeratu genuen. Hala ere aldatu behar izan genuen nire klasea konfinatu zuten eta.

#### **5.2.5.- Lan-eremuan.**

Lan eremuan edo antzezpenean eman ziren gertaeretzat hausnartzeko, baliabide ezberdinak erabili dira, haien artean landa koadernoak, argazkiak, bideoak eta elkarrizketak. Ondorio hauek lau atal handietan banatu egin dira; Giroa, parte-hartzea, ulermena eta obrak eragindako sentimenduak.

GIROA
Antzezpena ikusi baino lehen giroan sartzeko haiek 4. jardueran egin zituzten <b>obrak</b> pasiloan jarri ziren. Honek bi eragin izan zituen;

- Jarduera egin zutenen poza eta ikusiko zutenaren zalantza.
- Jardueran parte hartu ez zutenen hurrengan “inibidia” puntu bat ikusi zen haien obra faltan ikusiz. “ Que morro...” , “ No hay ninguna mia ahí...” bezalako esaldiak eginez.

Haurrak gelara sartu ziren momentua **iluntasun osoa** izateko pentsatuta zegoen guztia, bakarrik oihala, aulkia eta kabailetea. Hau ez zen horrela atera zoruan zeuden sabai-lehioen ondorioz.

- Haurrak gelan zegoen guztia begiratzen hasi ziren, psikomotrizitate gelan izan zenez bertan zeuden koltxonetak arreta handia erakarri zuten, pentsatuta zegoen giroa alde batera utziz.

**Zirrara** zen haurren aurpegian ikusten zen sentimendu bat, zerbait ezberdinak egiteko eta disfrutatzeke nahiak adieraziz.

#### PARTE-HARTZEA

**Obran** zehar haur batzuegan eman zen parte-hartzea, aldez-aurretik adierazitako beldurra egia bihurtuz, baina ondorioak ez izanez obra antzeten zenen artean, obraren inguruko eta momentu horretan gertatzen zenaren inguruko esaldi eta komentario solteak izanik.

Antzeztu **ostean** eman zen momentuan haurren parte hartzea hasieran urria zen, haien aurrean zeuden pertsonak ezezagunen ondorioz.

Pixkanaka galderak egiten hasi ziren obraren inguruan eta bereziki jantzien inguruan.

#### ULERMENA

**Itzalak** landu ziren baliabideen artean kokatzen da, antzezpena egiteko erabili zen metodo, oihal eta argi berdinak erabili ziren aldez aurretiko jarduera gauzatzerako orduan, honek ulermena bermatu zuen.

**Artearen** mundura hurbiltzea eragin zuzena izan da, antzezpenean agertzen diren obren inguruan galdetu eta hauek antzezpenearen ostean klasean arakatu zituzten.



Honekin batera Hilma Alf Klint-en inguruan detaile gehiago adierazteko eskatu zuten.

**Heriotza** modu normal batean ikusi zuten, obra bukatu zenean hori komentatuz eta irakurritako liburuarekin harremanak sortuz.

Ulertu ez zuten adierazle bat **garai historikoa** izan zen. Lantzeko beharra ez zegoela pentsatu zen. Izan ere, emakumeen eguna aste berdinean ospatu zen eta beste garaietan pairatu zutena azaldu zen sakon. Baina hau antzezlanarekin lotzea ez zen lortu, hau lantzeko jarduera espezifikoko baten beharra dago.

Bigarren elementu bat ulertu ez zutena honako hau izan zen, **pertsonaia ezberdinak pertsona berdina** antzeztea. Ile aldaketa ez zen nabarmena izan hau ulertzeko, Herminaren heriotza gertatu zela ez zuten guztiek ulertzen, izan ere honi buruz galdetu zuten obra bukatu zenean.

#### OBRAK ERAGINDAKO SENTIMENDUAK

Kasu batzuetan berdin zitzaien, **deskonektatu** zuten haurrak egon ziren ere.

Beste kasu batzuetan **amorrua** atera zen, emakumeek ezin margotzeari. Gaur egungo egoerarekin lotzen zuten. Haur batek bete izeba artelanak saltzen zituela adierazi zuen, gaia primeran lotuz eta besteengan **harridura** sortuz.

#### 5.2.6.- Alderdi oztopatzaileak.

Hainbat alderdi oztopatzaileekin topatu ginen antzezpena egiten behar genuen egunean. Alde batetik, **Covid** egoera bete betean topatu zen gurekin eta antzezpena egin behar zen astean nire gela osoa konfinatu izan zuen, honen ondorioz egun aldaketa egin behar izan genuen, honek ekartzen zituen ondorioekin. Izan ere nire taldekideengan eragin zuzena sortuz, antolatuta zeukaten guztia moldatu eta batzuen kasuan haien praktikaldiko azken eguna “galdu” behar izan zuten Samaniego ikastetxean eginez.

Honekin batera antzezpenen **denbora tarte**a oztopo txiki bat izan zen, izan ere unibertsitatean egin zen antzezpenetik hainbat hilabete pasa ziren eta honek deskonekzio puntu batera eraman zigun. Honen ondorioz Samaniego ikastolan obra

antzeztu baino lehen, bilera batzuk egin behar izan genituen dena gogoratzeko eta elkarren artean behar genuen laguntasun eta konekzioa berriro ere lortzeko.

Hala ere inpaktu gehien izan zuena **lekua** izan zen, lanean zehar adierazi den moduan psikomotrizitate gelan antzeztu behar izan genuen “Emakume margolariaren istorioa”. Pertsonalki aurreikusi ez nuen arazo batekin topatu ginen, **argia**. Psikomotrizitate gela argitasun asko duen gela da, leiho ugari dauzka eta. Hauei gehituz aurretik ikusi ez nituen sabai-leiho batzuk zeuden ezin zirenak estali. Antzerkiaren barnean hau osatzen duen ezinbesteko elementu bat argia da eta gure kasuan inportanteena zen.

Oihal bat erabiliz guk sortutako hainbat bideo eta irudi ikusten ziren, honekin batera eta aurretiko jardueretan landu zen moduan, itzalak sortzen ziren ere. Ustekabe honen ostean, haurren arreta mantentzea zailagoa izan zen. Hala ere hau ekiditeko, momentuan inprobisatu ziren mugimendu zabalagoak eta arreta gehiago behar zutenak aurrera eramane ziren.

#### **5.2.7.- Alderdi erraztatzaileak.**

Hiru izan dira proiektu hau aurrera eramateko alderdi klabeak. Lehenengoa **haurrak** izango lirateke, graduan zehar eta bereziki minorrean zehar ikasitakoa haien aurreran eta modu erreal batean ikusteko gaitasuna izateak, lau urteetan izandako ikaskuntza prozesuari bukaera paregabea ematen dio. Haien parte-hartzea ikustea, aurpegiaren eta gorputzaren bidez adierazten dituzten sentimenduak eta pentsamenduak sentitzea eta egindako lanaren saria ikustea, egindako esfortzu guztiak balio izatea eragin du.

Bigarrenik, etnografia osatzeko erabili diren **baliabide** anitzak izan dira. Lehenengo momentutik landa koadernoak, argazkiak eta elkarrizketak bereziki egon dira, ondorioak ateratzeko eta azalertzeko laguntzaile bikainak izan direnak. Baliabide ezberdinak beti detaile ezberdinak lortzen dituzte, honela denak elkartzuz informazio esanguratsua lortzeko ahalmenarekin topatzen zara.

Azkenik prozesu osoan parte hartu duten **taldekideak** izan dira, haien esfortzu, buruhauste eta laguntasunaren ondorioz, dena aurrera ateratzea lortu da. Sortu den taldeko kideen artean dagoen konfiantza eta laguntasuna klabeak dira, deserotasun momentuetan laguntzeko eta alaitasuna berriz ere bueltan ekartzeko. Bota diren ideia

guztiei ongietorria eman zaizkie, pentsamendu, arazo eta izaerak momentuoro errespetatuz eta giro paregabea sortuz.

## 6. ONDORIOAK

Lan hau, bizi behar den esperientzia baten moduan identifikatzen da, prozesuan zehar egindako ikerketa eta hausnarketa sakon baten ondorioa izanez, honekin, Haur Hezkuntzan dramatizazioaren beharra azpimarratuz eta honek ekartzen dituen onurak edo abantailak baieztatuz. Lehen aipatu den moduan, dramatizazioa banakoaren heziketan indartzaile handi bat da, emozioak, sentimenduak eta ezagutzak kontuan hartzen baititu (Nuñez, 2003).

Hurrek prozesuan zehar izan dituzten sentimendu ezberdinak, nire taldeak eta nik pertsonalki izan ditudanekin batu egiten dira. Graduan zehar ikasitakoa eta bereziki sortutako proiektu bat, Haur Hezkuntzako gela batera eramatearen momentua sakona da, guztia birplanteatzen duena eta hezitzaileen partetik etengabeko formakuntza eta prestakuntzaren beharra ulertzen laguntzen duena.

Honekin batera lan honen beste aldea kontuan hartu behar da, hau da bakoitzaren bizitzan dagoen momentua eta honen proiektu honetan dauzkan ondorioak, nire kasuan ugariak izan direnak. Estres eta lan handiko momentuak izan dira, modu batean edo bestean prozesu honekin batera aurrera egiteko momentuak, heldutasun puntu bat eskatu egiten zutenak.

Hainbat dira proiektu honen barnean egin beharko ziren **hobekuntza proposamenak**, hala ere lau adieraziko dira. Lehenengoa, antzezpenaren orduan egin diren jarduerekin lotura da, hauek luzatzea izango litzateke egokia eta landu ez ziren gai bat gehiago sartzea, hala nola, obraren garai historikoa. Dena hobeto ulertzen lagunduko du eta guztiari zentzua ematen.

Bigarrena Leire-ren kasua izan zen, bi pertsonaia ezberdin (Hermina eta Hilmaren lagun bat) bakarrik pertsona batek antzeztea, Leire kasu honetan. Hau aldatzeko aukera ez badago, pertsonaiek haien artean daukaten arropa edo elementuen aldaketa esanguratsua izatea komeni da.

Hurrengoa, espazioaren aukeraketa egokia izatea, izan ere Covid inguruan dagoen momentuaren ondorioz leku aldaketa egin behar izan zen, normalean antzezpenak egiten ziren lekua kendu eta psikomotrizitate gelan egitea egokitu zitzaigun. Beraz, espazioa ondo begiratu behar da eta bertan egin ahal diren jarduerak

ondo definitu, arazoekin aurkitzen den momentuan hauek ekiditeko denbora izateko. Betiere espektatiba errealak sortuz eta dena bikain aterako dela ez pentsatuz. Honek, arazoak agertzen diren momentuan presio handia eragin dezake eta momentu horretan dagoen giroa txarrera eraman. Nuñez-ek (2003) adierazten duena helduei aplikatu ahal zaio, ezinbestekoa da balioetan eta errespetu giro batean haurrak heztea, bakoitzaren erritmoak errespetatuz eta norberaren gorputzari behar duen denbora emanaz.

Honekin bukatzeko esaldi bat ekarriko da, "*Haur Hezkuntzaren inguruan dauden ikuspuntuak azkenengo hamarkadan aldatu dira, honen ondorioz oso garrantzitsua da honen inguruan ikertzea*" (Rayna eta Laevers ,2011).

## 7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

237/2015 DEKRETUA. 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, *Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. Hezkuntza, Hizkuntza politika eta kultura saila, n. 9.

Alvarez, Carmen. (2008). *La etnografía como modelo de la investigación en la educación. Facultad de Ciencias de la Educación*. Universidad de Oviedo. Oviedo.

Alvarez-Uria, A. eta Tresserras, A. (2014). *Hezkuntza artistikoa jolas gisa*. In Vizcarra, M.T. (Koord.) *Kubik: antzezlan bata baino gehiago...* Haur Hezuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat (79-96 orr.). Bilbo: EHU.

Andrés, C.(2005). *La educación emocional en edades tempranas y el interés de su aplicación en la escuela. Programas de educación emocional, nuevo reto en la formación de los profesores*. Tendencias Pedagógicas, 10, 109.Universidad Autónoma de Madrid.

Aristizabal, P., Gómez-Pintado, A., Lasarte M. G., Tresserras, A., Alvarez-Uria, A., y Zelaieta E. (2014). *La expresión y comunicación a través de la dramatización*. Mención en el Grado de EI en la EU de Magisterio de Vitoria-Gasteiz. En GarcíaSempere, P.; Tejada Romero, P. y Ruscica, A. (Coords.), *Experiencias y propuestas de investigación y docencia en la creación artística* (pp. 77-88). Granada: Editorial Universidad de Granada.

Arrillaga, Amaia. (2020). *Adierazpen eta Komunikazioa trebetasunak: zapalduen antzerkia eta antzerki foroa*. Gasteiz.

Boal, A. (1974). *Teatro del oprimido*. Buenos Aires: Ediciones de la Flor.

Boal, Augusto (1998). *Juegos para actores y no actores*. Madrid: Alba.

Borda, M. I. (2015). *Dramatización infantil: una propuesta de reconstrucción del conocimiento experiencial*. ENSAYOS, Revista de la Facultad de Educación de Albacete, 30(2).

- Caillois, R. (1994). *Teoría de los Juegos*. Barcelona: Seix Barral.
- Cervera, L. (1989). *El torno a la literatura infantil*. Valencia-ko unibertsitatea. Cauce. 157-168.
- Cervera, J. (1993). *Hacia la presencia efectiva del teatro en la educación*. Valencia-ko unibertsitatea. 103-111.
- Eines, J., y Mantovani, A. ([1980] 1997). *Didáctica de la Dramatización*. Barcelona: Gedisa.
- Fallon, C. (2013). *Manifiesto «Museos de arte amigos de los niños pequeños»*. Teatro Guimbarde y FRAJE.
- Ferrés, J., Are, M., y Calero, J. (2005). *Nuevas tecnologías, globalización y migraciones*. Barcelona: Octaedro
- González, H. (2015). *La dramatización en Educación Infantil* (Gradu Amaierako Lana). Valladolid: Valladolideko Unibertsitatea.
- Goyeneche, Paule. (2019). *Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorrak irakaslegaien prestakuntzan duen inpaktua*. Gasteiz.
- Hammersey, M. ; Atkinson, P.A. (1994). *Ethnografía: Métodos de investigación*. Barcelona: Paidós.
- Huerta, Ricard. (2011). *El juego simbólico*.
- Llorente, E. (2000). *Imágenes en la enseñanza*. Revista Psicodidáctica, 9, 119-135.
- Luengo Sánchez, P.L. (2008). *Educación y gestalt* Tesina A.E.G.T.
- Malaguzzi, L. (2005). *Los cien lenguajes de la infancia*. Barcelona: Rosa Sensat.
- Moskowitz, E.S. (2003). *A picture is worth a thousand words: Arts education in New York City Public Schools*. Nueva York: Council of the City of New York, Education Committee.
- Nuñez, L. eta Navarro, M.R. (2007). *“Dramatización y educación: aspectos teóricos”*. Teoría de la educación, 19. 225-252.
- Parrado, G. (1992). *El Texto Dramático y su Interpretación*. . México: UNAM.

- Pradillo, J.I. (2003). *Entre la expresión corporal y el lenguaje del cuerpo*.
- Pérez-Tornero, J.M. (2008). *La sociedad multipantallas: retos para la alfabetización mediática*. *Comunicar*, 31(XVI), 15-25.
- Rayna, S. eta Laevers, F. (2011). *Understanding children from 0 to 3 years of age and its implications for education. What's new on the babies' side? Origins and evolutions*. *European Early Childhood Education Research Journal*, 19 (2),161-172.
- Ramírez, I. (2009). *Didáctica de la dramatización en educación infantil*. *Revista digital innovación y experiencias educativas*, 15.
- Sanchez Gala, M.D. (2007). *La dramatización en educación primaria como eje del aprendizaje lúdico-creativo*. Tesis Doctoral. Malagako Unibertsitatea.
- Serra, Carles. (2004). *Etnografía escolar. Etnografía de la educación*.
- Slade, P. (1978). *Expresión dramática infantil*. Herder, Barcelona.
- Solís, R. (2018). *El teatro como estrategia didáctica en la enseñanza ELE: Aspectos teóricos*. *Revista de la Asociación Europea de Profesores de Español. El español por el mundo*, 1, 235-247.
- Tejerina Lobo, Isabel. (2005). *La educación en valores y el Teatro. Apuntes para una reflexión y propuesta de actividades*.
- Torres, J.(1988). *La investigación etnográfica y la reconstrucción crítica en educación*.
- Lecompte, *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madrid, Morata.
- Tresserras, A. (2017). *Aportaciones a la formación del profesorado a través del análisis de una experiencia de arte y juego dramático en el primer ciclo de Educación Infantil*. Tesis Doctoral. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Trujillo, G. (2014). *Despertar interés por el teatro en los niños, por medio de las animaciones infantiles*. Tesis previa a la obtención de la licenciatura en actuación teatral. Universidad Central del Ecuador, facultad de artes.



Zelaieta Anta, Edu,; Camino Ortiz de Barrón, Igor; Alvarez Uria, Amaia; Lasarte Leonet, Gema. (2013). *Una experiencia teatral con estudiantes de Grado en Educación Infantil*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

## 8. ERANSKINAK

### 8.1 Argazkiak









## **8.2 Gidoia**

*(Obra hasiko da kaballete, aulki eta margotzeko materialarekin. Halaber, oihala gorritz egongo da, eta musika hasiko da. Argiari dagokionez, bakarrik aulkian izango du indarra.)*

*(Erretoproiektoreak gelatik jarrita egon)*

1. ESZENA: Hilma af Klint margotzen (antzerkia egiteko ekarriko dugun kaballetearekin) eserita lonaren aurrean, eta haurrei begira bere burua aurkeztu, musika batekin egoera emanez. (MUSIKA:

<https://www.youtube.com/watch?v=J9JaTwx8znA>

*Musika sartu, eta margotzen ikusiko da lonan. Ondoren hitz egin eta margotzen geratu. Margotu, hitz egin, margotu, hitz egin.... tarteka, lasai lasai eta egoera sortuz.*

*Hilma hitz egiten duen bakoitzean, bideoa gelditu. Esertzen denean, aulkiaren soinuarekin, bideoa jarri. Hitz egingo duenez, beste argia piztu. Musika baxuagoa jarri.*

HILMA: Kaixo, Ni Hilma naiz. Badakizue zer gustatzen zaidan egitea? Margotzea gustuko dut, asko asko margotzea. Horretara noa...baina shhh! sekretua da, ezin du inork jakin! Zer.... (*tristura*) emakumeoi ez gaituzte uzten... Baina horretara noa! SHH!

*Argia itzali. Musika igo.Denbora ixilik eta margotzen jarraitu... lasai lasai dago. Musika baxuagoa jarri. Argia piztu.*

HILMA: Ahaztu zait esatea...Suezian jaio naizela, eta 17 urteko emakumea naizela. Gainera, asko asko maite dudan ahizpa bat daukat, bai, txikitxo, 9 urtekoa.

*Argia itzali. Musika igo. Margotzera berriro.*

2. ESZENA: bere ahizpa sartzen da (Hilmak 17 eta ahizpak 9)

*Hilmak margotzen jarraitzen duenez, bukatzen dagoen bitartean bere ahizpa sartzen da. Musika baxuagoa jarri.*

HERMINA: Kaixo! Jada etxean nago! Norbait dago hemen??

HILMA: Kaixo ahizpatxo! Atzeko egongelan nago, etorri bakarrik bazaude.

*Hermina oinez, publikoan zegoelarik, Hilmaren egongelara joaten da. Argia piztu.*

*Margotzeari uzten dio eta bideoa gelditzen da.*

HERMINA: Ara! Margotzen zaude. Ikusten bazaituzte...

HILMA: sh! itxi atea mesedez. Zer moduz erosketan ahizpatxo?

HERMINA: ongi! ez zegoen eguneroko ogia baina beste bat hartu dut. Ez du inporta ezta?

HILMA: ez dut uste ezer esango dizutenik. Lasai egon.

HERMINA: zu zer egon zara egiten goiz osoan? Margotu eta margotu, beti bezala?

HILMA: Ba bai, betiko martxan. Baina ez galdetu hainbeste, ongi dago emakumeok margotzea nahiz eta sozialki onartua ez egon. Bueno utzi margotzen eta joan jolastera.

HERMINA: Bueno, ba... agur "margolari" (humor)

*Musika igo. Argia itzali. Ahizpa joaten denean, margotzen jarraitu eta bideoa bukatzen da. Koadroaren argazkia jarri denbora luze batez.*

3. ESZENA: Hermina hil egiten da 10 urterekin.

*Hermina jolastera joaten da Ionaren atzera (ez zaio ikusten). Margotzen bukatzen duenean, erretroproiektorea piztu eta proiektorea itzali eta dolu sentimendua izango du. Musikarik gabe. Herminaren galera sentitzen duenez, berari deika hasiko da.*

*Argiak piztu.*

HILMA: Hermina! Hermina!

HILMA: Hermina! Zer gertatu da! Non zaude! HERMINAAA...!

*Argiak itzali. Ez du zergatia ulertzen baina dolu sentimendua adierazi. Bat batean Ionaren atzean, Hermina agertzen da, lurrera eroriz. Musika jarri pixkanaka:*

<https://www.youtube.com/watch?v=RLwTyMZSp34><https://www.youtube.com/watch?v=RLwTyMZSp34>) Ezin du Ionaren atzera joan, eta frustrazioa (eskuarekin saiatu harrapatzen Ionaren aurretik, baina bera atzetik dagoenez ezin du

*harrapatu). Itzala lurrean dagoelarik, paretak itxi herminaren irudia kendu arte (bi kartulina beltzekin). Erretroproiektorea itzali. Argiak piztu.*

*Hilma frustrazioa sentitu eta margotzeko materiala pikutara bota.*

*Paretak ixten diren momentuan, iluntasuna egongo denez, aprobetxatu eta bideo bat jarriko dugu (hostoak erortzen, nostalgia, hilerrira joateko errepresentatzeko). Bidera abiatzen da (berokia hartu eta kalera doa, poliki poliki oinez...haizearekin, hostoekin). Loreak ditu, eta horiek uzten ditu bere ahizpatxoaren hobian. LOREEN ERREPRESENTAZIOA GARRANTZITSUA. Lore horiek bere malkoen errepresentazio metaforikoa izango litzateke.*

4. ESZENA: Deprimituak dago eta hilerrira "The Five" joaten direnez, eramaten diote margotzera publikoari begira.

*HILMA: zer egingo dut orain nire ahizpatxoa gabe? lagundu...*

*Hilma negarrez geratzen den bitartean, bostak diren taldekoek, loreak hartu, eta berarengana joaten dira banaka. Berarekin jarri, laztandu, eta esaten diote...*

*(Musika hasi baxuagoa jartzen... kendu arte)*

*CINCO 1: Hilma lasai, zurekin gaude guztiok publikoari ere erreferentzia eginez*

*CINCO 2: goazen denak margotzera, liberazioa behar duzu.*

*Hostoen bideoa gelditu. (Bakoitzak bere koaderno eta margoak hartu, publikotik ere egongo direnak eta eseriko dira). Musika alaia jarri: <https://www.youtube.com/watch?v=J9JaTWX8znA> . (Baina baxua, hitz egingo dute)*

5. ESZENA: "The five"-ren taldean elkarriketak eta denak margotzen. Honetan, elkarriketa klabe bat egongo da, gure zapalketa sartuz: emakumea izanez, nola publikatu obrak? izan ahalko dute? nola egingo dute?

*Ibiltzen doaz, bakoitzak koaderno bat hartzen du eta lurrean eseriko dira. Denak margotzen hasten dira.*



*(Cinco 3ren argazkia eta obra bat jarri pantailan.)*

*(CINCO3 altxatzen da eta CINCO1-en koadroa ikusten du, eta esaten du)*

CINCO3: A ze talentua daukazu! Beste mundu batean egongo bagina, ez duzue imaginatzen ze triunfoa izango genukeen...

*(Cinco 2-ren argazkia eta obra bat pantailan jarri)*

CINCO2: Egia esan, gizonek boterea duten gizarte honetan ez dira ohartzen emakumeon botereaz eta talentuetaz.

*(Cinco 1-en argazkia eta obra bat jarri)*

CINCO1: Joe baina, nik ere bi esku ditut, begira!

*Ikusleari, bere eskuak erakusten dizkio, harridura edo ulertzen ez duen zerbaiten aurpegia ezarriz.*

Bi esku, bi begi, berdin hartzen dugu arkatza...BEGIRA!

*Berriro ere erakutsi*

Zein da desberdintasuna? benetan ez dudala ulertzen, zer daukate gizonek guk ez dugunik?

*(Cinco 4-ren argazkia eta obra bat jarri)*

CINCO4: Ez dut ulertzen zergatik emakumeoi desberdin ikusten gaituzten... Espero dut hurrengo belaunaldietan egoera hau aldatzea eta guk bezalako emakumeek marrazteko aukera izatea... Hala ere, egiten dugunaz harro egon behar dugu!

*eta bat batean izoztu. BIGARREN ESZENA.*

*Musikaren bolumena igo*

*Hilma altxatu, eta margotzen hasten da. Proiektorean, bere kuadro baten bideoa, Bitartean Hilma dantzatzen, margotzen, poesia, musikala emozionala.*

*Kuadroa bukatu eta bat batean..... PUM. eta musika gelditu eta hilmaren argakia jarri)*

HILMA: aizue aizue! Entzun duzue hori????

CINCO 2: Zer izan da hori??¿?¿?¿?

CINCO 3: begira begira, ikusi Hilma, zu zara!

HILMA: Zergatik nago ni hor? Nor dago hitz egiten nitaz oraingoan....?

CINCO 4: Badakizu, sozialki ez gara "Emakume ONAK" Jijji

CINCO2: Sorginak deitzen gaituzte, bazenekiten? Marrazteagatik eta "Ezberdinak" izateagatik.... SORGINAK!

CINCO 3: JAJAJAJAJ eta zer da sorgina izatea?

HILMA: Ba orduan, sorginak deitzen bagaituzte.... goazen sorginak izatera!

*Musika alaia berriro piztu baxu*

CINCO 4: goazen goazen...!

*Bere aurpegiari, margotuko diogu (sudurra, txanoa, mokua eta erratza) horretan jarri, bere aurpegia sorgina izateagatik. Humorez, sozietateaz parre eginez.*

*CUATRO4 Sudurra marraztu*

*(hurrengo argazkia pasatu, hilma sudurra margotuta)*

HILMA: begira zer sudur dudan sorgina izateagatik !!!

CUATRO4: Mukia erortzen ari zaizu eta... jajajaja

*(bitartean moko bat marraztu airean)*

*(argazkiari moko gehitu)*

CUATRO 2: Hilma Hilma! Begira zer erratza ezarriko dizudan sorgina izateagatik!!

*(Erratza marraztu)*

*(Argazkiari erratza gehitu)*

CUATRO1: JAJAJAJAJA.

CUATRO 1: Begira ze garatxo atera zaizun..!!

*(Garatxoa marraztu)*

*(Argazkiari garatxoa gehitu)*

CUATRO3: Jajajaaj eta ze txano hain handia duzun!

*(Txanoa marraztu)*

*(Argazkiri txanoa gehitu)*

DENAK BATERA: sorgina pirulina, erratza gainean. Ipurdia zikina....

*(Argazkia kendu, jarri guztion argazkia)*

*(Margozten jarraitu...)*

6. ESZENA:

*(Bat batean gizon bat sartzen da, proiektu bat proposatzeko asmoarekin.)*

GIZONA: Kaixo, Rudolf naiz. *(publikoari begira)*

*( Neskei begiratzten die orain)*

- Proposamen bat daukat zuentzat, proiektu handi bat egiteko aukera duzue, proiektu erraldoi bat! Denbora asko eskaintzen duen proiektua, oso garrantzitsua, zuen bizitza aldatuko duena.

HILMA: Ados, eta zein da proiektu hori?

GIZONA: Artearen mundua elkartzen duen eraikin berri bat sortuko da.

Eraikin hori inguratzeko margolan berezi bat behar dugu, eta pentsatu dut zuetako batek sortzea.

CINCO1: Nik ez dut ezta entzun nahi... ez dut arazorik izan nahi, ni banao neskak

*(irtetzen da)*

*(Bere argazkia desagertu)*

CINCO2: Nik ez dut parte hartuko, ez dut uste komenigarria denik garai honetan zuk proposatutako egitea... gero arte neskak.

*irtetzen da*

*(Bere argazkia desagertu)*

CINCO3: Niri ez zait interesatzen... ados nago beraiekin, agur.

*irtetzen da*

*(Bere argazkia desagertu)*

CINCO4: Ni ez naiz zutaz fidatzen... agur. Beraiekin noa Hilma, esango didazu.

*irtetzen da*

*(Bere argazkia desagertu)*

*(Hilmak publikoari begira eta baietz esaten du buruarekin)*

*(Bkarrik hilmaren argazkia bakarrik gelditu)*

HILMA: Ados, ni prest nago proposamen hori aurrera eramateko.

(Musika altuagoa jarri) **Musika jarri:**

<https://www.youtube.com/watch?v=J9JaTWX8znA>

(Rudolf eszenatik ateratzen da eta desagertzen da)

*Hilmak bere aulkia, Kaballetea eta margotzeko materiala hartu, besarkatu eta berriro bere lekuan jarri)*

*(aulkian eseri eta margotzen hasten da)*

*Argiak itzali.*

7. ESZENA: Hilmak guk aukeratutako obra margotzen egongo da. Denbora asko pasatzea da helburua lan handia delako.

*(Bitartean, Ionan agertuko da Hilmak margotzen duen obra ikusiz (grabatuta egongo da)*

*(Denbora baten ostean)*

*(Hilma margotzen gelditu, altxatu eta publikora joan)*

(Musika baxuago jarri)

Argia piztu.

HILMA: Gauak eta gauak egon nahiz margotzen.... ea jada bukatzen dudan.... koadro oso garrantzitsua da niretzat.... ( publikora begira)

*(Hilma berriro eseri)*

*(Musika igo)*

*(Argia itzali)*

*(Margolana bukatzen du)*

*(Koadroa bukatuaren argazkia)*

*HILMA : Listo, bukatua*

*(Musika baxuagoa)*

*(Argia piztu)*

*(Berrito gizona sartzen da eszenara, margolana begiratzen du eta harridura aurpegia jartzen du)*

GIZONA: hau ezin da publiko bihurtu, Hilma, emakumea zara! Nire gomendioa izango litzateke... urte asko pasa beharko dira zuk obrak publikatzeko... Itxaron beharko duzu... :(

*(Koadroa desagertzen den bideoa jarri)*

HILMA: Nola? Nork esaten du hori?? *(haserre)*

GIZONA: Gizarteak hilma.....

HILMA: Ez da bidezkoa!!!

GIZONA: Horrelakoa da bizitza.... *(eszenatik irten)*

HILMA: Baina baina baina .... normala iruditzen zaizue??? *(publikora begiratzuz)*

*(eta eszenatik ibiltzen hasten da haserre, bat batean gaizki sentitzen da eta pixkanaka hiltzen da)*

*(Hilma gaizki sentitzen denean erretroporoiektorea piztu eta bideoa kendu).*

8. ESZENA: Hilma hiltzen da, tranbia batek akatuz 82 urterekin

*Musika nostalgia: <https://www.youtube.com/watch?v=RLwTyMZSp34>*

*Lonaren atzean tren bat pasatzen joango da. (kartulina beltz batekin tapatzen joan) Bitartean, Hilma bere hiltzeko momentua iritsi dela nabaritzen joaten da. Horrela, lonarengana gerturatzen den bitartean, honako hau esango du, intentsio gutxirekin.*

*(Musika baxuagoa)*

HILMA: nire denbora heldu da... Espero dut, nire obrak noizbait zuek ikusteko aukera izatea...

*(Argia itzali)*

*Lonaren atzean dagoenean, lurrera erori eta hil egiten da. Dena itzaliko da.*

*(Musika kendu)*

11. ESZENA: Gizonak bukaera emanaz kontatu Hilmak pasa duena; 20 urte pasa dira hil zenetik eta publikatu berriak dira. Abstrakzioa sortu duen emakumea, baina boterea. Koadroa lonaren atzetik egotetik, aurrean egotera pasatzen da.

GIZONA: Aspaldiko! Hilma duela 20 urte hil zen, zorionez bere obrak ikusi ahal ditugu. Begira begira!

*(Musika alaia baxua)*

*(lona seinlatu eta koadro garrantzitsua jarri markoarekin)*

*(gizona ibili lehenengo retroproiektore eta piztu)*

GIZONA: Hau, Nueva York eko museo batean egin zuen erakusketa.

*(ibili eta bigarren eretroproiektorea piztu)*

GIZONA: Honako hau suetziako espozizioan egon zen.

*(ibili eta 3. eretroproiektua piztu)*

GIZONA: Malagan

*(ibili eta 4. eretroproiektua piztu)*

GIZONA: Eta parisen.

GIZONA: disfrutatu.

*(Gizona eszenatik atera)*

*(Musika igo)*

*(denbora baten ostea musika pixkanaka kendu)*

*(denak eszenatokira atera eta argia piztu)*

*(Agurra 3 aldiz)*

OBRA BUKATZEN DA.

### 8.3 Lekuaren argazkiak

